

Euskal instituzioaren gaia azter dezan galdegin diote Garapen Kontseiluari

Gizarteko ordezkariak biltzen dituen egiturak uztailaren 3an egingen du biltzarra

Hur Gorostiaga / Baiona

Iparraldeko Udalen Biltzarrak Ipar Euskal Herriarendako instituziorik egokiena zein litzatekeen aztertzeko eskaera egin zion atzo Garapen Kontseiluari. Garapen Kontseiluak orain arte ez du gaia landu nahi izan, hautetsien eskaerarik ez zuela eta. Uztailaren 3an egitekoa du bere biltzar nagusia.

ANDRE Darraidou Ezpeletako auzapez zentristaren eskaerari erantzunik, Ipar Euskal Herriko Udalen Biltzarrak aho batez onartu zuen, atzo, Garapen Kontseiluari euskal instituzioaren gaia azter dezan galdegitea; hain zuzen ere, gizarte zibileko eragileek osatzen duten egiturak «Zein litzateke instituziorik egokiena Ipar Euskal Herriarendako?» galderari erantzun diezaien.

Orain arte Garapen Kontseiluak Hautetsien Kontseiluak galdegindako gaiak soilik erantzun izan die, hautetsien zerbitzura dagoen egitura zibila izanik. Garapen Kontseiluak gai jakin batzuei buruz ikerketak egin eta ondorioak hautetsiei helarazten dizkie, bakoitzak dagoen egituraren bidera ditzan, Lurralde Eskemarekin egin izan duten gisara.

Hautetsien Kontseiluak biztanleriaren arabera ordezkari izanik, Euskal Departamenduaren kontrako kideak nagusi dira, eta gaia Garapen Kontseilura helarazi nahi izan den bakoitzean, oztopatua izan da.



BOB EDMÉ

Ipar Euskal Herriko hainbat auzapez, atzo Baionan eginiko bileran.

Elkartasuna ala faltsukeria

IPARRALDEKO Udalen Biltzarreko beste gai nagusietarik bat Baiona-Angelu-Miarritze Distrituaren zabalpen proiektuari buruzkoa izan zen atzoko bileran. Alain Lamassoure distrituburuak (UDF), barnealdeko herriekin elkarlana sakondu beharra azaldu zuen, eta ihardespen gogorrak sortu zituen hitzaldiarekin. Besteak beste, Michelle Alliot-Marie (RPR) Donibane-Lohizuneko auzapezak gogorki erantzun zion «zinismoa» leporaturik. Frantzian eskuina zatiturik dagoela

ere igarri zen atzoko bileran.

Izan ere, Atharratzen eginiko Biltzarrean bezala, Lamassourek barnealdeko lurren truke kostaldeko dirua eskaini zuen berriz ere. Barnealdeko herrietako ordezkariak elkartasuna ekimenen bidez egiten dela ohartarazi zioten Alain Lamassoureni, «eta ez ele ederren bitartez». Didier Borotra Angeluko auzapeza laguntzera atera zen atzo, barnealdeak eta kostaldeak berdin elkarren beharra dutela adieraziz.

Udalen Biltzarrak galdegitea, aldiz, ekimen berria da, eta ikusteko dago zein erantzun emanen dion Garapen Kontseiluko zuzendaritzak Ipar Euskal Herriko hautetsien gehiengoari. Jean Jacques Lasserre Bidaxuneko auzapez eta Hautetsien Kontseiluko lehendakaria bertan izanik ere, ez zuen desadostasunik agertu eskariari buruz, atzo.

Hain zuzen ere, heldu den uztailaren 3an egitekoa dute biltzar nagusia. Garapen Kontseilua hainbat gai aztertzen ari da egun, Baiona-Iruñea errepide ardatza, euskararen irakaskuntza zabaltzea eta ur kalitateari buruzko arloa, batik bat.

Hildako militanteen hamar senide itxialdian daude justizia eta egia eskatzeko

■ San Nicolas elizan egindako baraualdia gaur amaituko dute

Erredakzioa/Bilbo

OSTIRALEAN hasita, egoera berezietan hildako pertsonen hamar senidek itxialdia egin zuten Bilbo-ko San Nicolas elizan, gertakariak argitu eta senideen izaera militantea aldarrikatzeko. «Josu Zabala, Jon Lizarralde eta Susana Arregiren balizko buruhilketaren gainean hedatutako bertsio ofizialen gezurra salatzen dugu. Era berean, Naparra-ren desgertarazteari buruz eta beste kasu ilun guztiei buruz gure aipamena egin nahi dugu», nabarmendu zuten atzo Justizia, Egia eta Oroitzapena taldeko kideek. Kasu horiek direla eta, «Estatuaren guda zikinerako eredu berri baten parte direlako konbentzimendua adierazten dugu», ohartarazi zuten. Itxialdian direnen arabera (Josu Zabala, Jon Erezuma eta Jon Lizarralderen senideak, besteak beste), eredu hori «estatuaren inpunitatea ziurtatzeko inolako siglarik gabe agertzen da, eta hilketak militanteek beraiei egozten zaizkie; horrela, haien izaera eta borroka zikintzen ahalegintzen dira».

Ikuspegi horrekin, «bertsio ofiziala gezurtatzea eta egia argitzea» eskatu diote Estatuari. Alderdiei, eta bereziki gobernu ardurak izan dituztenei, datuak epaitegietara bidertatzeko eskatu diete.

Egia eta justizia askatasunaren parte direla eta, egiaren bila saia dadin galdegin zioten euskal Elizari eta herritarrei bidenabar.